ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2025

490/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 8koa
21/05/2025

EUSKAL HIZKUNTZA

EPAI MAHIA ZBKº1

KALIFIKAZIOA

DEITURAK: .....

IZENA: .....

NANa/AIZ: .....

Opari bat azaldu zen bebarruan. Opari-opari bat, kaxa koloretsu bat, bere zinta gorri eta lazo. Atariko eskaileretan hirugarren koskan zegoen astelehenetik. Ostirala da gaur. Laugarren pisukoak, ia errezeloz, eskuetan hartu du oparia, eta gora-behera astindu du. Ez du pisu askorik. Kolonia bat? Belarritako batzuk? Laugarrenekoa kilo bateko bi arroz pakete bainoago bi kiloko paketea hobea dela uste duten horietakoa da, eta garrantzia kendu dio opariari. Lehenengo pisukoa eskaileretatik joaten da beti; igogailuak klaustrofobia sortzen dio, igogailuan norbaitekin elkartzeak itolarria, eta oparia zuen eskailera barandari pega-pega eginda, eta arnasari eutsita pasatzen zeraman astea. Seigarrenekoak, hasieran, bonba baten susmoa hartu zion opariari, bere tenporizadore, bere kable gorri eta berde. Bigarrenean bizi zen ertzain erretiratuarekin hitz egin zuen, hau ere paperean sartu, eta astearte gauean oparia zabaldu zuten prebentzio guztiekin. Ez dago bonbarik. Bosgarrenekoak uste du seigarrenekoaren maitale ohiak utzi duela oparia. Haserreak entzuten zituen aspaldian, eta ez du ikusi aste honetan. Ja ostirala, eta berak eraman du etxera oparia. Seigarreneko lelo horrek ez du hainbeste merezi.

Maialen Akizu, *Berria,* 2025ko otsailaren 09a

1. IZENBURUA. Ipini izenburua testurari (p1).
2. EGITURA Banatu testua zatitan eta atera ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. (2p).
3. TESTUAREN LABURPENA. 4-5 lerro gehienez. (2p) .
4. BERRIDATZ EZAZU AZPIMARRATUTA DAGOENA ESANAHIA ALDATU GABE (2P) .
5. TESTUAREN IRUZKIN EDO BALORAZIO PERTSONALA (2p).
6. ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (1p).

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2025

490/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 8koa

21/05/2025 **EUSKAL HIZKUNTZA**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2025

490/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 8koa

21/05/2025 **EUSKAL HIZKUNTZA**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2025

490/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 8koa

21/05/2025 **EUSKAL HIZKUNTZA**